

## OI AITATXO!

**A** gur zeruko Aita  
errukiz betea,  
zein gozoa dan Zuri  
olan deitutea!  
Beti dozu zabalik  
etxeko atea,  
Zu bai zarala ona,  
Aitatxo maitea!

**I** turritik dario  
ur geldi-ezina,  
itsasoratzea da  
bere atsegina.  
Ezin aztu Zeuretzat  
nozula egina,  
Zeuk aseko deustazu  
nire zure-mina.

**T** an-tan joka seintxo  
amaren sabela,  
munduko argitara  
urten nai leukela.  
Zure aberri-minez  
ai nire txanela,  
mundu barrirantz doa  
seintxo bezela.

**A** itatxo, zure bila  
nabil biotz-begi,  
an-emen zagozala  
ta bilaka segi.  
Bila dabilen onek  
noizbait lortu begi:  
Aita, Zeu ikustea  
arpegiz-arpegi.

A. Martzel